itzulpena: Aritz Galarraga

Gabriel Ferrater

Munduko
Poesia
Kaierak

Gabriel Ferrater

itzulpena: Aritz Galarraga

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Gabriel Ferrater
© itzulpenarena: Aritz Galarraga
© edizio honena: Susa

2015eko martxoa

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Gabriel Ferraterren ibilbide poetikoa bere bizitzaren iruditzat har liteke: biak izan ziren nahiko laburrak, biak amaitu ziren Ferraterren borondate irmoaren kariaz. Ezaguna da gertaera: sarritan aipatu zuen lagunartean berrogeita hamar urtetatik aurrera bizitzen jarraitzea ez zuela merezi, eta, unea ailegaturik, bere buruaz beste egin zuen haren adiskide behiala sinesgogorren harridura eta oinazerako. 1972ko apirilaren 27a zen, hogeita hiru egun falta zitzaizkion berrogeita hamargarren urtemugarako.

Tartean, bizi hitza merezi izan zuen bizialdi bat eduki zuen, intentsua gorabeheratsua bezain. 1922an jaio zen Reus-en, eta gazterik, Bordelera joan zen familia, gerratik ihesi. Han hartu zuen estreinakoz esku artean Charles Baudelaireren *Les Fleurs du Mal* (*Gaizkiaren loreak*), eta hark eragin zion liluraren berri eman zuen bere poema ezagunenetako batean, *In memoriam*-en. 1936ko Gerraren piztean kokatuta, garaiko gazte baten hezibide sentimentala marrazten digu nolabait ale luze horrek.

Izan ere, Ferraterren poesiaren oinarrian begirada moral eta psikologikoa dago, baina hari buruz abstraktuki jardun beharrean, egoera edo irudi konkre-

tuak lagun ekartzen du orri artera. Idazteko modu horren sakonean T.S. Eliot-en “korrelatu objektiboa” kontzeptua suma dezakegu, zeinaren arabera, poetak, bere sentipenak, kanpoko objektu zehatzen bidez ematen dituen. Egiazki, lirika anglosaxoiaren eragina aski agerikoa izan zen Ferraterren obran. Elioten *The Love Song of J. Alfred Prufrock* poemaren, modernismoaren mugarri denaren, zantzuak topa litezke *In memoriam*en eta *Igandea*n adibidez. Eliotekiko miresmen bera zuen halaber Ferraterren bizitzan eta obran arrasto nabaria utzi zuen beste poeta batek, Jaime Gil de Biedmak. Parrandakide eta adiskide min, Espainiako literaturako 50eko Hamarkadako belaunaldiko poeten artean kokatu ohi dira. Egia esatera, nekez sartzen da hor Ferrater, besteek ez bezala katalanez idazten zuelako, baina laguntasun handia partekatu zuen horietako ugarirekin (Gil de Biedmaz gain, Juan Marse, Carlos Barral, Esther Tusquets, Jaime Salinas), eta baita poetika moduko bat ere neurri batean. Ferraterren *Aurpegia* poema hartu eta Gil de Biedmaren *Contra Jaime Gil de Biedma* erkatzea besterik ez dugu bi espiritu estetikoren arteko hurbiltasunaz ohartzeko: umore beltzekoa maiz, kasik nihilista ere bai, eta gordina ia beti min egin arte.

Ferraterren poemetako askok istoriotxoak kontatzen dizkigute, narrazioak bailiran ia, beren leku, denbora eta pertsonaia ongi definituekin. Horrek ez du esan nahi, ordea, errazki eta arazki irakurtzekoak direnik. Izan ere, poetaren ohitura errepikatua zen poemetan berak edo lagunarteak soilik ulertzen ahal zituzten erreferentziak sartzea, eta halakoetan zaila egiten zaio irakurleari testua benetan zeri buruz ari den usaintzea. Hainbeste lerratzen da konkretura mikroistorio horien bidez, ezen irakurleari arrotzak ere suerte dakizkiokeen han topatutakoak. Hautsezko zoldaz eta bizikletez josiriko mundu hori irudikatzeko, bestetik, lengoaia poetiko katalan berri bat osatu behar izan zuen, ordura arte nagusi zena hanpatuegia suertatzen zitzaiolako.

Hiru poema liburu baino ez zituen argitara eman: *Da nuces pueris* (*Eman intxaurrak haurrei*), *Menja't una cama* (*Jan ezazu hanka bat*) eta *Teoria dels cossos* (*Gorputzen teoria*). Hirurak bildu zituen liburuki bakarrean 1968an *Les dones i els dies* (*Emakumeak eta egunak*) izenburuarekin.

Itzulia izan zenez gero poeta estimatua dugu mundu zabalean. Seamus Heaney poeta irlandar eta Nobel sariak aski goratzen zuen esate batera: “*Ferra-*

terren poesiak ez digu soilik gure buruen kontziente egiten, baizik eta poeta original guztien gisara, horrek zer esan nahi duen hausnarrarazten digu".

BEÑAT SARASOLA

In memoriam

Gerrak eztanda egin zuenean, nik
hamalau urte eta bi hilabete nituen. Hasieran
ez ninduen bereziki hunkitu. Burua
beste gauza batek betetzen zidan, oraindik
garrantzizkoagoa iruditzen zaidana. Aurkitu nuen
Les Fleurs du Mal, poesia esan nahi zuen
horrek, baiki, baina
bada beste gauza bat, nola deitu ez dakidana
eta da inporta duena. Nahasmena? Ez.
Hala esaten nion orduan. Hurritz
azpian etzanda, hosto zimel eta berde-berdeko
arrosa baten bihotzean, han, etzanda
munduaren hankartean, nahasmen zoriontsuz
hanpatzen nintzen, Herria erreboltaz
eta kontra-erreboltaz lehertzen zen
bitartean, ez dakit zoriontsu, baina
bai ni baino nahasiago. Bizitza
morala? Ez dabil urruti, baina anbiguoa zait.
Agian hitzik egokiena da egoismoa,
eta hobe da oroitzea hamalau urterekin
lehenengo pertsona aldatu behar dugula:

pluralak estutzen gaitu, eta estilita
singularraren ariketa, bere buruaren gainera
igotakoaren goragalea,
programa egokia iruditzen zaigu etorkizunerako.
Gero urteak datoz, eta zorionez
joan ere badoaz, eta nekatzen zaigu
barneko bildotsaren kopeta egoskorra
laztantzen duen eskua, eta gogoz hartzen dugu
plural hau, ez dakit umila,
singularra baztertzen duena, uzten gaitu,
baina eskertu eta sarituz gero. Aski.
    Oporrak bukatuta, bai,
ikusi nuen nire munduari norbaitek
aurpegi berri bat egin ziola. Odola eta sua.
Ez zitzaizkidan izugarri, baina betiko
odola eta sua ziren. Nire apaiz eskola
erre egin zuten, eta Guiu,
gimnasia aurre-militarra eginarazten zigun
sarjentua, eta denok gorrotatua
(pluralera itzuli naiz, beti atzera
egiten baitu bizitzak), Guiu tiroz
hil zuten, eta kontatu ziguten
ez zela erraza izan, sare kota
zeramalako baserriko atsoaren

mozorropean, eta saskian,
arrautzen azpian, hiru granada ezkutatzen.
Herculesen plaza zokoan
hil zuten, Institutu ondoan,
hara joaten ginen klase artekoan,
eta ez dut gogoratzen lekua inolaz ere
markatuta geratu zitzaigunik, ez genuen
platanondo enborretan balarik, ez bestelako
seinalerik aurkitu nahi. Odolari dagokionez,
ez dago esan beharrik agian egun berean
eraman zuela haizeak. Hautsa
agian zertxobait loditu zuen, besterik ez.
Eskolako pareta erreskaldatuak,
ez dakit oroitzen ditudan, edo irudikatzen.
Ez ginen sartu. Azalberritzen ari ginen, eta
ez zitzaizkigun interesgarri azal zaharreko
piltzarrak. Beldurra usaintzen genuen,
udazken hartako urrina,
baina iruditzen zitzaigun gozoa. Helduen
beldurra zen. Haurren beldurretik ateratzen
ari ginen, eta zortea genuen, mundua
ia osoro zitzaigun erraza. Zenbat
beldurrago haiek, hainbat libreago gu.
Betiko prozesua zen, eta lauso

ulertzen genuen gurpila gurekin
asko azkartzen zela. Zoriontsu ginen.

Eta ginen denok elkarrekin, asko eta beti.
Sindikatu kide bihurtu gintuzten, eta plazer
bizi eta askotarikoak eman zizkigun sindikatuak.
Konfiskatutako etxebizitza batean, etsaiari
hartutako etxebizitza zena guretzat
(ez etsai ofizialari, gureari baizik),
pokerreko keen atzean, liburu eta altzariak
eramaten genituen, pistolen eta balen
trukea egiten genuen, erromatarrez
agurtzen genuen (ez alferrik, gureak
jatorragoak ziren, baina besteek
zuten gaiztagin ospe handiagoa),
neskak txokora eraman nahi izaten genituen
eta ez genuenez lortzen, urduri,
balkoitik igo eta jaisten ginen.
Ezagutu genituen putak eta lapurreta.
Lapurtzea ohikoa zen. Putetxeak,
azkar asko irekiko zitzaizkigun
baina hilabete batzuk irabazi genituen. Lehen
bonbardaketa Solen etxeko babeslekuan
igaro genuen, eta bertan geratzeko beldurra
izan genuen denok. Arrunt gutxiagotuak,

boterean zeuden aitak, oraindik.
Isidre izan zen gure artean
purgazioak hartzen lehena, eta bere aitak
ondo aukeratu zuen hainbeste eskatzen zuen
bizikleta oparitzeko momentu txarra.
Batari ez bazen besteari utzi behar izaten zion,
egunero, ez erabiltzeko aitzakia
izan zezan. Bizikletek betetzen dizkidate
garai hartako oroitzapenak.
Gehien lapurtzen genuena zen. Tailerra ere
antolatu genuen berriz margotzeko,
berriz muntatuz: baten koadroa beste baten
gurpilekin, eta hirugarren baten tubularrekin.
Ez dakit nola, Tamariteko gaztelura joateko
etxetik bazkari garaian
ihes egin genuen arratsalde batean,
abiatzean, nik ez nuen
bizikletarik. Alokatu nahi izan nuen,
baina itxita zegoen
ezagutzen ninduten denda. Ez zen justua,
eta ez nuen etsi. Ukabil eta oin kolpez
deitu nuen, eta atea ireki zitzaidan.
Ez zegoen inor. Hartu nuen
maxina, eta utzi nien oharra.

Txangoa izan zen larrigarria. Errukirik gabeko
haize batek makurrarazten gintuen.
Eta bueltakoan aurrez jotzen zuen.
Pedalen gainean zutik, aldapa
gogorra igoko banu bezala, iltzatu
eta dardarati eusten nion, aitzina egin gabe.
Elkarrengandik bereizi ginen.
Agusti eta biok luze hartu genuen atseden
arroila baten babesean etzanda
aerodromo militar bilakatzeko suntsitzen ari ziren
soroen ondoan. Gauez
eta erdi oinez, bukatu genuen bidea.
Lehen etxeetan, gozotegi bat
aurkitu genuen irekita. Herio batean
sartu ginen, haurrak ginen, ginena baino
askoz haurrago, eta lurrean luze
jarrita, eta mosaiko hotzean etzanda
labetik atera berriko ogiak jan genituen, muturra
ondo sartuta, soilik neke eta gose
eta pisu izatearen plazerez ero.
Dena gerta zitekeen, eta ez ninduen harritu
bat-bateko zaratak, ez oihuek eta urratsek,
ez lurrerantz bertikal eta oliotsu
destatzen ninduten fusil kanoiek,

ez norbaitek ni altxatzea, eta bultzatzea
furgoneta baten barrualdera, ez lokal
arraro batean itxaroten ninduen aitak,
jende askorekin eztabaidan, eta bertan zeuden
orobat lagunen gurasoak, eta nirea
ematen zuen pixkanaka nagusitzen zela
eta eraman egin ninduen etxera. Biharamunean
ulertu nuen enpresa kolektibizatu
zutela. Haserre,
arratsalde osoan jarraitu gintuen
komiteak, aurreko jabeak agian ondo alokatuta
ikusiko zuen,
baina haiek ikusten ez zuten
bizikleta kobratzeko. Egun batzuetarako,
gurasoak axolako egin zitzaizkigun.
Beste gauza batzuk lapurtzen genituen.
Galtzontziloekin tematu ginen denbora askoan.
Taldean sartzen ginen denda batera,
begiratzen genuen, dena nahasten, ez genuen ezer
erosten,
eta alkandora eta jertseak betetzen genituen
galtzontziloz. Ez dakit gero zer egiten genuen. Hain
gutxi
ulertzen dut nola ez gintuzten harrapatu.

Aitzitik pentsatzen dut garai hartan
beti zihoazela zorabiatuta, eta erabat
zurtuta, eta agian gaiztotuta ere bai,
eta maskalduak zeuzkatela
ordenako erreflexuak. Berdin zien, edo kitzikatzen zien,
lapurtuak izateak. Soilik genekien
dendariak urezko begitan
menekotzen zitzaizkigula, bortxatzaileak
bentzututako emakumea nola. Gogoratzen dut beste behin
Subietesen denda aukeratu genuen eguna,
sarri sartzen ginen, esku hutsik inoiz
ez ateratzeko. Jabeak berak
zerbitzatu zigun: salmahaian jarri zizkigun
kaxak, ireki zituen, eta gure eskuetatik
urrun eramanda, ahots goran
zenbatu zituen piezak. Tematu gabe
utzi genituen, eta atzera zenbatu zituen hark.
Kanpoan ginela, harro, lehen istantean
zenbaketaren aurretik hartutako
galtzontziloak atera nituen. Eta zera: beste batzuk
hartu zituen Albertek. Lo zeuden denak
eta denak egiten zien burrunba belarrietan.

Subietes jauna ere
hil egin zuten. Orain oroitzen badut,
arropa beltz eta zuria ikusten dut, eta barruan
oso zaharra zirudien norbait. Agian ez zen
hainbatekoa.
Beltza, ez dut uste doluagatik zenik:
jainkojalea zen, eta garai hartan beltzez
janzten zen mezajendea, eta agure
dotoreren bat ere bai, eta betiko
errepublikarren bat. Katoliko izateagatik
sartu zuten preso Subietes.
Zorte txarra izan zuen. Preso zegoela,
egun batean altxa zen izu handia.
Saloun zeuden. Italiarrak. Lehorreratu
ziren. Reuseko komiteak hiruzpalau
autobus konfiskatu zituen,
preso zeuzkatenak bertan sartu
eta eraman zituzten arroila batera. Laburra izan
zen:
ez zuen arrisku imajinario hark baino
gehiago iraun. Ton izan zen,
autobusarekin batera harrapatu,
eta dena ikusi behar izan zuen gidarietako bat.
Asaldatuta,

begi ertzetik begiratzen zien kondenatuei,
nola jaisten ziren, eta doi-doi ukitzen zioten
eserlekua. Ia denak
ezagutzen zituen. Tonen asaldura
ikusi zuen Subietes jaunak,
eta errukitu egin zen. Jaisten ari zela,
une batez gelditu, eskua sorbaldan
jarri, eta esan zion: “Hara,
Tonet, egoera honetan ikustea ere”. Kontsolamendu
eskasa. Egun hartako hilketa
agindu zuen komiteko presidentea ere
ezagutu dut. Oliva zen.

Olivaz hitz egin nahi dut orain.
Reus aretoko atezaina zen lehen,
igandeetan eskuak maitasunean zikintzera
joaten ginen zinemakoa. Ez dut geroztik
ikusi. Eta ez dut bestela ikusten,
ez bada larruz jantzita, egur argiko
giderra zuen Luger batekin,
izterra baino luzeago, arma baino
entseina gisa erabiltzen zuena. Gerra garaiko
lore da sinbolismo espiritua.
Erritu zaleak ziren, bai Oliva,
bai emaztea. Konfiskatu zuten, haiek bizitzeko

bertan, aberats etxe bat,
eta emazteak berehala pentsatu zuen
kaktusik gabe
ez zela nahikoa jauntxoene. Landare
zukutsuetan ikasi zuen emakumeak
bizimodu aberatsaren luxua ikusten: arimaren
itzal xehea, jabetzearen eguzki erraldoiaren
pean. Orduan jabe izan nahi zuen,
eta barre egiten zuen, barre egiten zuten emakume
guztiek,
eta gauza bihurtutako bizitza erosten zuten,
azkenerako
material, esperantzarik gabea.
Une bat baino ez zen izan, bizpahiru hilabete.
Barre egiten zuten *popolane* haiek,
baina harridurarik gabe, beti
bezala barre. Esperantza itzultzen zitzaien
eta gordeka erosten zuten, batez ere
aberatsek. Etorritako bidetik joan ginen,
eta bueltako bidea, ertz ezagunek
ixten ziguten pixkanaka.
Oliva eta komitekoak, maiz ikusten nituen
kafetegiren bateko mahaian
itxaroten, edo kaletik presaka

zihoazela, eseri eta itxarotera.
Gau batean kontzertua eman zuen orkestra
batek.
Aitak eraman ninduen, eta urduritasunez
egiten nuen dardara. Musikak
parfois nous prend comme une mer, eta galtzera
emana zegoen garai baten itsasoak
harrapatuta nindukan ni, ikusten zen
gainbehera zetorrela, eta kitzikatzen ninduen
beste fluxu pertsonalago batek eramatearen ideiak,
edo behintzat adiskiderik gabekoak,
nahiz izan aitarekin. Beethoven eta Ravel
entzun nituen, eta orain ez dakit
nora eraman ninduten, eraman baldin baninduten
inora.
Kontzertua bukatutakoan, ereserkiak jo zituzten:
Riegoren himnoa, Internazionala,
Els Segadors eta Warszawianka,
FAIren ereserkia. Jendeak
Els Segadors txalotu zuen gehien. Oliva
ez zegoen ados, eta agertoki aurrealdera
abiatu zen, oihuka. Gorrarena egiteko
are gogorrago jo genituen esku zartak.
Barrez ari ziren aurpegiei erreparatzen nien, eta

mutu
oihukatzen nuen, sugarrak bezala, eta barre egiten
genuen
eta txalo, ur-bitsetan. Aita eta biok
adiskide ginenez gero,
ez genuen etxera berehala itzuli nahi
eta kafea hartzera eseri ginen elkarrekin.
Politikaz mintzatu ginen, eta iruditzen zait
iruditu zitzaidala erreboltarik ez zela
behar (ez dut esan nahi zentzu politikoan)
eta zaharragoekin eskuz esku joan gaitezkeela.
Gauez, kafetegi batean, eduki daiteke aita.
Oliva sartu zen, eta orain badakit
hiruzpalau kopa zituela sobera.
Ate ondoan geunden eserita, eta ikusi gintuen
berehala. Zutik mantentzen laguntzen zion
giderrari eutsiz, esan zuen,
aitari begira: “Zu izan zara
arduraduna”. (Garai hartan arduradunez
beteta zegoen dena. Denak ziren
zerbaiten arduradun, auskalo
zerena, eta edozein egoeraren aurrean
bilatzen zuten arduradunagoa izan zitekeen
besteren bat.) Lau esaldirekin desbideratu zion

aitak arreta, eta Olivak
askatu egin zuen arma. Gero,
aitak azaltzen zuenean, askoz luzeagoa
izaten zen eztabaida hura. Nik ez nuen
ulertzen bertute zehatza barreiatzeko
nahia. Orain argi ikusten dut zergatia:
ahotsak batere traditzen ez zuen,
baina begietan igartzen zitzaion lainoa
barreiatzea zen helburua. Liluratzen ninduen,
eta ez nion eman zegokion izena
nire begiak zeharkatzen zituenean.
Ihes egin zidan, hiru egunen buruan,
Solen etxeko korridorean
Oliva aurrez aurre aurkitu nuenean. Putetxeetara
joaten ginen mutilok ez genuen
erabat ondo ulertzen gure erresuman geundela
eskubide osoz, eta maizter arrotzak
haiek zirela, nahiz izan pistoleroak.

Bide anitzeko garaia etorri zen, eta norbaitek
nahasten zuen lekuz eta pertsonaz
osatutako karta jokoa. Oliva,
sei edo zazpi urteren buruan, ezusteko
bilakatu zitzaigunean, amak
ezagutu zuen. Arrats batez Bordelen,

etxean bakarrik zegoela, ireki egin zion.
Gure eskailera igo zuen
bertan herriko jendea bizi zela
zekielako. Laguntza behar zuen.
Alemanen usina batean lan egiten zuela
esan zigun, uste dut Royanen.
Bonbardaketa batek fabrika
txikitu zuen, eta ondoko kanpamendua.
Oliva, kasualitatez, kanpoan zegoen,
baina dena galdu zuen, arropa
eta dirua, zeukan guztia, arrotz
bilakatu zitzaion bizitza izan ezik, eta jada
ez zuen haren ardurarik: alemanak
arduratzen ziren bere patu berriaz.
Agian nire ama izan zen Olivaz zerbait jakin
eta harekin hitz egin zuen
azken emakumea. Arropa puska batzuk
eman zizkion, akaso sekula
jantzi ez zituenak. Bi egun
geroago, beste bonbardaketa ingeles batek
harrapatu zuen.
Ez naizenez Saint-Germaineko
orandar bat, ez zait iruditzen
beldurra gai handia denik

literatura edo filosofiarako. Hori bai,
gizaki askok izan dute beldurra, eta horiez
hitz egin beharra dago. Komeni da esatea
Olivak beldurra izan zuela, eta beldurra
eragin ziola jende askori, aita eta bioi
ez hainbatekoa, Toni handiagoa, eta beste batzuei
berea bezain bortitza, edo bortitzagoa.

Lehen alegia

Antonia andreak, hauskorra baina hain
larderiatsua eta arrazoiz betea,
ez zuen sekula taxirik hartzen, esana
ziotelako taxietan berariaz gaitzesten zituen
gauzak egiten zirela:
lotsarik ezaren tresna ziren.
Larrimina ere bazuen: zalantzati
sentitzen zen zerua irabazi nahi horretan,
dena abiarazi zuten Adam eta Evaren ondoan
jartzeko arriskua baitzegoen.
Andreu jauna, semea, aski aberatsa zen,
eguerdiko deabru kementsuak
bere egiteko beste.
Erasoa, bat-batekoa. Hegal urduriak
bi segundoz astindu ziren, eta Andreu jaunak,
etsita erabat, dibortzioa nahi izan zuen.
Familia aberats eta konplexuak
badakigu nola harilkatzen diren. Dibortzio batek
eskatzen du denbora. Alde zuela iritzita,
uda bat irabaztera joan zen matxinoa
Portugalera, makina-idazle

gozo eta segur aski ezein deabruk hartu
gabeko batekin, nahiz
Andreu jaunaren deabruak gutiziatua. Bukatu zen
uda, eta jada neguko egun batean
Andreu jaunak ama eraman
behar izan zuen abokatuarenera:
hatz gehiegi Andreu jaunak desegin asmo zuen
korapilo hura ukikatzeko.
Autoan gidari, orduan zuzen,
amaren etxera iritsi zen,
ezin zuen eragozpenik aurreikusi.
(Dena normal, ondo zedarritutako mundu batean:
ados, baina, ziri liriko eta pertsonalerako
zirrikituak beti irekitzen dira.)
Zuhurtzia, edo urteen jakinduria? Antonia andreak
galdetu zuen ea eskaintzen zitzaion autoa
udako bidaldian erabilitakoa zen.
Hala zen, eta Andreu jaunak (orain esan dezakegu
ez zuela sekula dibortzioa lortu)
buelta erdi eman, eta autoa aldatu zuen.
Ez zuen obeditu umiltasunagatik,
ez beste sentimenduren bategatik; lekuz kanpo
emango zuen: soilik zuzen

eta bihotz uzkurreko, amaren sugar
iraindua erretzen zen bitartean.
Ez hausnarkor ez borrokalari, bazuen
aski zintzotasun bi gorputz haiek
bateraezinak zirela onartzen jakiteko:
batak, agian harena maite izan zuen,
duela urte asko; bestea, hark maite zuen.
Bata maitasun ahaztua, besterik ez, eta bestea
ez beti gogoratua. Ez sobera bizi biak.
Beti bezala, deabrua zen engainatua.

Deabruetako bat, bederen. Beste batzuk ere
sartu zirelako jokoan, ezin diot utzi
beldur izateari, infernuak deabru asko
ezkutatzen dituela ezin dut ahaztu, eta erabat
burura eramandako kausa onen urmael
lasaienaren uretan, bere burua ikusi nahi duela
zirrara setati eta garaileko
limoi algara ero batek.

Bigarren alegia

Vilagut, egia esatera, hegaldi ordu
ugari egina zen, eta pentsatu zuen
garaia zela lur hartzeko bakean
eta ezkontzan. Ezkutuan (baziren
bere garaian moztu beharreko lotura batzuk)
sarri joaten zen *partietara* eta Lizeora.
Atsegina izan zen neskekin, eta atseginak
izan ziren amak harekin. Laster
erabakia zuen ia, edo esan genezake
mugatuki egiten zuela zalantza:
bi neskak erakartzen zuten. Bata zen
beltzarana, elur urratuko pendizek
islatutako neguko eguzkiarena.
Ez zuen gehiegi hitz egiten, telefonoz
gehiago. Egunez, aire zabalean,
begiak erdi itxita izaten zituen, eta gauez
irekitzen zituen asko, ilun eta zintzo.
Dantzatzen zen erruz, baina ez bereziki ondo,
eta perfektua zen gidatzen. Eskuak,
dena kemen, gerta zitezkeen gozo,
eta dena ahazten zuen Vilagutek haiei begira,

edalontzi izoztu baten fruitua ahurrean
edo lurrunaren azal leuna, zerrenda zuzenetan,
hatzekin erauzten zuenean.
Ez zuen barre egiten gehiegi, eta arretagabe egiten zuela
zirudien, eta denbora batera igartzen zitzaion
beste algara bat zuela, sakona
eta hunkitua; sentimendu egindako gorputza
eta beste gorputzekiko adiskidetasunaren zantzua.
Baina ez zuen sobera pentsatzen gorputzetan,
ez zuen kezkatzen eskua izatea
piztia erregutzaile bat:
animaliak ez dira pertsona, ondo
tratatu behar dira, baina kasu handirik egin gabe.
Ilehoria zen beste neska, eta udan baino
ez zuen azala beltzaran. Izotzik gabe
hartzen diren likoreak edaten zituen, haur
garaiko oroitzapenak bezain lodi eta lokartuak.
Baina gutxi edaten zuen, eta Vilagut
urduri sentitzen zen harekin:
ez zekien nola eskaini
plazer zuzen eta agerikoren bat.
Atsegin zuen janaria prestatzea, eta uste
izatekoa zen ondo jatea ere gustatuko

zitzaiola, baina ezin zuen
jatetxeetara eraman: jokaera arau
zorrotzak zituen neskak, bazterketez
eginak. *Hortus conclusus*. Hesi
garaiak, eta barruan, dena promes hezea.
Iragan urrun eta luze batez mintzo zen
(hainbeste sartu zen estimu erneko
urte haietan), festez eta egutegiaren
araberako erritualez, eta berehalako irekiera
izango zuen etorkizunaz. Gardena
zitzaion oraina, jario leunekoa,
eta ez zuen sendoagoa egin nahi.
Neskato batek bezala egiten zuen barre, maiz,
eta batzuetan desgaraiz.
Festa pribatu batzuetan baino ez zuen
dantza egiten, sarri ez, baina musikari
fidel, garaiaren norabideei bezain.
Oso pertsonalizatua zuen gorputza
eta beste gorputzen ez lagunegi, inoiz ez
muga edo distantziekiko arretagabe.
    Vilagut luzatzen ari zen,
baina bazekien goiz edo berandu
hartuko zuela erabakia, eta hasi zen aferari
neurria hartzen, lehenik, konponketak.

Eraberritze lan irmoa eskatzen zuen
jauretxe batean bizi zen. Lagunei
ez zien beste ezertaz hitz egiten.
“Trenkada hau behera, hara:
ondoko gelak eta honek handi bat
osatuko dute, eta leiho zabal bat irekita,
haurrentzat ezin hobea, eguzkia behar dute eta;
sukaldeak hartuko du patioaren
alde bat; etxebizitza batean, azken finean,
sukaldea da bihotza, etxe bat
hori da, ulertzen didazue”. Astebete
igaro, eta dena aldatzen zen.
“Hau izango da egongela, zera, lagunak hartzeko
txoko goxo bat, eta gela txiki hau,
izkinakoa, berariaz egina dirudiena:
hemen arkuteria, eta taberna izango dugu,
pentsatzen dut,
girotua; okerrena da garajea:
nire autoa, harena, handia, lekua
hartzen du denak: ez dakit non sartu sukaldea”.
Eta horrela kulunkatzen zen Vilaguten bihotza,
eta taupada batek aldatzen zuen materia:
harria, edozein mitoren aurreko sinbolo otzana.
Esan beharra dago etxekoiarekin ezkondu zela?

Alkoholik gogorrenak eramango du beti gizona.

Jokoak

Muturreko auzo batean bizitzeak, artega
ibiltzera garamatza, ziurtasunezko
bazterren bat aurkitu nahiko bagenu bezala,
trenkadarena
baino zentzu sendoago bat
eta euri zahar eta hautsezko zoldak jandako
habe piloarena, eta izozki
dendarena, aurrean patinatzen duten
neskekin, eta sei dira patin
kirrinkari pare baterako. Iritsi naiz
Bartzelona tenis klubera, aberatsen
kluba, eta atarian lerrokatutako
autoei begi eman diet, aberatsen
auto izateko borondate zintzoz
beteak: alegia, arima
moduko bat dutela. Laketerako MG bat
dago, modelo berri txikiagokoa;
orain gutxi irakurri dut hauentzat egina dagoela:
une certaine couche d'acheteurs
qui trouvent les modèles existants trop chers;
eta esan nahi du Bartzelonako aberatsak, nik uste.

Hesi ertzetik noa. Alde batean
tenis zelai kaskar bat dago; hor sartzen
dituzte haur hasiberriak, eta beti erortzen zaizkie
pilotak kanpora. Atera da haurra, ile hori-horia
(eta orbanik gabe zuria, ez baitio jartzen
jokoari atentzio berezirik). Inarrosi da
ikusi dituenean kanpoan algarrobo lazgarriak
eta berak tenisean bezain gaizki futbolean
jokatzen duten haur ezinago zikinak: biziago,
hori bai. Ezagun du beldurra
eta atetik beretik, begiekin bilatu du
pilota, eta ez du ikusi arte
utzi babeslekua. Jaso du, eta itzuli da
korrika, lotsaren lotsaz erori,
eta altxatuko balitz orbangabearen tatxa espero
zuen
umeteriaren oihu sabelkoia.

Aurrera darrait, eta orain badakit nora.
Beste jokaleku bat dago, farmazia-produktuen
fabrikako patioan.
Saskibaloian aritzen dira hemen, ilunabarrean.
Gizon-emakumeek, elkarrekin, eguna ahal bezainbat
luzatzen dute, trinkotzen doan
gris lehorraren malutapean.

Ez daude txantxetarako. Barre egiten dute
baina saskibaloian jokatu bitartean, eta talde-jokoa
entrenatzen dute, posizioak probatuz
zelaian, eta aldatuz, eta elkarlotuz.
Gustuko dut arreta neska baten
lanean jartzea. Altuegia da. Marra
hori-gorri fineko elastikoa darama.
Ez da ona saskira jaurtitzen:
zortea du pilotak lo hartzen badio
burdinazko uztaian, eta momentua
luzatzen bada. Barrura erortzen bada, amore
emanik,
neskak oihu egiten du eta irri-karkaila:
lakarra du ahotsa, txori handiena bezalakoa.
Baina ondo nahasten du jokoa, eta badu adiskide
on bat: ondoen jokatzen duena.
Neskarengandik pilota jaso, eta ez da
mugitzen: bat-batean hasten da neska korrika
eta markarik gabe jasotzen du baloia eta, zehatz,
itzultzen dio eta, zehatz, leun jaurtitzen du mutilak.
Ni, dotrinazalea naizenez, gorroto
intelektualez betea, ezin dut sinetsi
elkarri esateko ezer ez izatea dibertitzean,
paketeak egiteaz eta makinarekin idazteaz nekatuta.

Orain begiratzen badiet eta haienganako
enpatia sentitzen badut, sinetsi nahi dut zentzua
ematen diotela
dibertiarazten nauten zentzuen jokoari,
oso gaizki lotuak ditudan arren. Sinetsi nahi dut
gorputz horien mugimendu zehatzek
aurrekari egokia ezartzen dutela, ez dakit zerena.

Egunsentia

Badoakit gaua, beste gau bat, eta eroritako
hegazkin erraldoi baten hegoa tartekatu da
urdin trinko haren eta leihoaren artean, eta zalantza
egiten dut
berde arina ote den edo zilarra, bizitza
gehiegizkoa inposatuz umetokia
urratzen duen bisturiaren finezia jarraikia bezain
hotza, edo orobat argia bera, anai-arrebak
haserretzeko indar egiteaz nekatzen den umearen
eskua arrakalatzen duenean, auskalo balioko zer
ezkutatzen dienaren itxurak eginez, eta lasaituz doa
harrapakina, eta badakit ez dela ezer aterako
atzo nahigabe handiz nigan zegoenaz beste, eta
hotza ematen dit
neure burua egun berri batez begiratzeak, listuz
betetako hezur, mamirik gabeko, gauaz lekora.

Mutilatua

Nik badakit ez duzula maite.
Ez esan inori.
Hirurok, laguntzen badiguzu,
gordeko dugu sekretua.
Beste inork ez dezala ikus
zuk eta biok ikusi duguna.
Lagun izan dituzuen
jende eta gauzetatik
ezkutatuko da.
Ez da itzuliko zu itxaroteko
egina den kafetegira.
Udazken-neguak etorriko dira:
ostrak eta ardo zuria
zerbitzatzen zizkizueten marmolezko
mahaietatik urrun egongo da.
Euri egunetan
ez du begiratuko
zeuen burua ikusi zenuten asfaltora,
taxirik ezin aurkitu
eta oinez joan behar izaten zenutenetan.
Zutaz hitz egin dioten liburuak

ez ditu gehiago irekiko:
ez du jakingo zer dioten
zutaz ari ez direnean.
Eta batez ere, zaude
ziur, ez zuk ez nik
ez dugu inoiz jakingo non dagoen.
Gordeko da
urrun handiko lurraldetan.
Ibiliko da baso
lausotan zehar. Ez du harrituko
gure memoriaren
argi azagaiak.
Eta urrun izatean,
hila dagoela sinesteko beste,
oroit dezakegu eta esan
ez zenuela maite.
Ez gaitu batere larrituko
faltesten zaituela ikusteak.
Mamu bat izango da
nahigaberik, bizitzarik gabea.
Erakusleiho bat apaintzen duen
eta hunkitzen ez gaituen
Gueule Cassée baten
argazki makurra bezalaxe.

Oraingoz, ez dezagun esan:
ez dezagun jendea asalda
odolez eta zornez
betetako zauria erakutsita.
Eman diezaiogun denbora eta ahanztura.
Isil gaitezen, inork,
neronek ere, nirekin
nahas ezin dezan arte.

Alderantziz

Esango dut alderantziz. Esango dut abuztuko
euri eroa, mutilaren oin gakotuak
tranpolinaren ertzean,
apirileko lilen urrinak dakarren
erbi-txakurraren jauzi arina, bere gosea
idazten duen armiarmaren pazientzia,
lau hanka eta bi burudun gorputza
ilunabar-griseko orubean, biolin
arkua bezain irristakorra den arraina,
bizikleta gaineko nesken urdina eta urrea,
zakurraren egarri lazgarria, kamioi
argien ebakia merkatuko
goizalde ustelean, beso finak.
Esango dut ihesi doakidana. Ez dut esango nitaz
ezer.

Igandea

Argiaren txoriak habiara doaz
eta utzi digute egia txikizko
dardara sotil bat adarretan.
Zuhaixka-arima galdu beharra dago. Beste
sentimendu igarokor bat xahutu da.
Altxatu gara, eta nor garen, zer nahi dugun
garaiz ez oroitzeko beldurrez,
pixkanaka itzuli gara. Arratsaldea,
gure irudiaren txingarra, errautsaren
ama urduri baina pairakorra,
itzaltzen ari da, eta tabako hoztuaren kiratsa
da arnasten. Bakarrik egon gara,
baina orain buxatzen ditugu inbutu-lepoak
(ukondoa ukondoaren kontra, elkarri traba egiten
dioten pausoak)
herriaren baitan isurtzeko soro
hautsien oroitzapen zehaztugabea, kamioi
hondakin andana, hats ahitu baten gisako
bide motzak, eta jada egur egindako
zuhaitz biziak. Nahasi gara
geratu direnekin, orain dantzaldietatik

eta argiantz likatsuko kobazuloetatik
ateratzen direnekin, eta arratsaldeak gogortutako
musuak zapaltzen ditugu denok, orain bi
maskorretan
zatitzen direnak, muskuilu bat bezala, eta erortzen.
Globoa lehertu zaion ume batek
negar etsi bat jaulki du. Elkarri begiratu diogu
eta barre egin dugu pozik. Gutako bakar bat ere
ez da ikusten gorago izakien eskalan.

Paisaia figurekin

Bi erreaktore zerua zulatuz. Igotzen dira
hautsaren orratza sartu arte
eguzkizko ahanztura zabalaren bihotzean. Lur
arrasean, munduak ezkutatzen du senak ere
ihes egiten diola, eta bira egiten du maltzurkeria
geldo
larderiatsuz: erabat bertikal
makurtzen zaigu, eta lerratzen gara bihar erdian
aurkituko dugun bizitzaren
ertzetara. Gaur igandea. Almendrondoek
barre egiten dute, oraindik biluzik, ikusirik beren
burua
arroan behera itzal presazkoak
egiten dituzten erreka uretan. Prest,
dena dago prest, eta ezer ez da osorik
udaberri. Dena zaigu
sarkorrago horrela, mehar eta garden.
Dena sinesten dugunez, aberats ustekoak gara.
Zoriontsu zapore bakarra dastatzez,
uste dugu etorkizuna dastatzen ari garela. Bana
ditzagun

gu guztiontzat etorriko diren egunak,
laranja baten atalak bezala. Tori.

Lurreko mekanika

Ikusten, horrela has liteke dena.
Gero, sakonena. Orain ekarri
figura soilak, akordeak
eta kontrasteak, harako zuhurrak
eta honako azkarrak, inori ezkutatzen
ez zaizkion keinuak. Ikusten duzu,
orain beste edozein unetan bezain ondo.
Plaza batean zaude, etxeak eraiki erdian;
beirazko zeru aleak askatzen dituzten
granadak. Zaharrek
argia jasotzen dute inork ez bezala, bare,
urtzen ez den argizarizko eskuetan. Gazteak
hordi ateratzen dira zine heroikotik
eta lurrera botatzen dute zigarreta, gogor,
txoria jo nahi duen harria nola.
Kafetegi ez erabat luxuzkoa, berrogeita hamar
inguruko gizona, beratza baina
suharra, bizartegiko trapu iduri,
ez daki sua eskaini behar dion
itxaroten ari den neskari,
edo, umiliatuz, bidali behar duen

irrika zelatan ari zaion zerbitzari burlatia.
Ahatetxo emea, zauririk gabeko
orkatila gozoan merkromina,
marra bat, lasterka doa
pasio biluziz, ez baitu presarik
eta nahi du guk jakitea, eta barre egiten die
dendaleihoko kristalei. Ikusten duzu. Mundu bat.
Ilunkeraren une batean, ikusi dituzu gorputzak
eta distantziak. Orain neurtu
masak, bihotzen mugimenduak.

Gerra txikia

Tankeen aurkako minak zeramatzaten, ezdeus
eta astunak sinbolo historiko bat bezain,
aspaldiko usainez bustitako
mantekin bilduak, erromero eta
mando izerdia. Eta halaber
ehiza-hegazkin alemaniarrei kendutako
metrailadoreak,
eta txatarra ingeleseko metrailetak.
Bi-hiruko taldetan, elkarrengandik
oso urrun, apal eta temati
lurrera eroritako enbor handi bateko pipiak bezala,
Pirinioak zulatzen zituzten makiek.
Ezagutu ditugun gerren artean
txikienetakoa izan zen. Hilotz bat besterik
ez zidan jarri aurrean. Aragoiko neskato
nekazari batena, kamioi militar batera
igo eta orobat bilakatu zena
sinbolo erraz. Arreta galarazi zien
txoferrari eta mekanikoari, eta hirurak
amildu ziren zubitik behera. Zauri
garbia zuen neskak, interes

gutxikoa, baina autopsia egin zioten
medikuek, oker nabarmen bat
aurkitu zioten orkatilan,
herentziazkoa, arrazaren arbolako
erro urrunek hurrupatua.
Eta momentuko minak, eragin zuen
plazerarekin batera, garrantzia galdu zuten
milaka urteko akats gor eta ezarri
haren aurrean. Banakotasunetik ezer ez.
Gerra izan zen, txiki arren.
Eta nahiz izan itzela, berezitik ez zuen ezer
hartu ninduen higuinak ere, azterketa luzearen une
batean
eta eguzkiaren laguntzaz, estalpea
gogor zigortzen baitzuen eta hilerri
xume hura zen gurutze eta hezurrez
betetako larrain elkorra,
heriotzaren kiratsa iruditu zitzaidanean
sexu zikin baten usaina zela. Horrek esan nahi du
gaztea nintzela ni,
gerrara doazenak beste; eta haragiak
beldurra ematen die, eta txikitzen dute, eta
bortxatu.
Oro ikurgarri. Ezin oroituzkoa.

Egiteko gaitza

Putzu bat dago, urdin-ilundua,
haurra zinenean ikusitako errebolber kanoia
bezalakoa.
Iratze garaiak daude, eta eguzkiaren
danborrak urrun eta ahul jotzen du. Txori bat dago,
laztua eta berdea eta horia eta basatia
luma aztekako tapizaren modukoa, eta eskatzen du
argi gehiago, beti argi gehiago, eta are lur azpirago
hondoratzeko da. Eta zuk bilatu egingo zenuke
azken hautseraino, hosto erorien
eta sustrai lakar baina estutzen duen eskuaren
neurrira egindakoen artean.
Masusta beltzeko errutegi bat dago, eta intxaurrak
dira krustazeo ustelduak, malkoak bezain
likatsuak eta txarrak. Izerditzen diren
enborrak daude. Hegal bizien metala dago.
Barruan, hori guztia. Baina ez zara sartuko.
Ez dakizu nora jo. Hain aspaldi
eman zizkizuten norabideak.
Durduzaturik, bideak galdu dituzu
eta ez daukazu kuraiarik. Eseri zara, eta oroitu duzu

putzu batez hitz egin zizutela, ez bideez.

Urrats zalantzatia

Espaloitik jaitsi, eta palasta
ahula; eta ur urduriaren dardarak,
tarte labur batez bada ere, atzeratu dit
oina asfaltoan bermatzeko unea.
Ikusten dut oraindik lan egiten duela, ez dagoela
erabat bizigabe, urteek ihes egiteko baliatzen duten
atearen egurra. Orain bertan ireki da
arraildura bat, eta sartu zait argi haria.
Gizonoin hauek, soraio kasik
larruaren barruan, gogoratu dituzte oin
abil eta jakintsuak, zoriontsu diren haurroinak
ohetzat arbel beltzezko
arroila duen ur ilunean blaitzeaz,
non labaintzen diren
kalamu zola zopatu eta likinak,
eta oso odol mehea darie orkatilei, kanabera
hostoen
oroitzapenez, jaitsieran mozten duten
berdetasun hotzeko labanak, erortzen denean
bezain arin, lur eta gizakien ordokitik
ihes egiteko, eguerdiarekin burrunba egiten duen

mundua, eta itzaltzen du
kanaberen egunsentiko metal hotzaren distira.

Hartua

Maiteko bazintut baino urrunago nago. Zizareek
nire gorpuaren afari hotz bat egitean
zure zaporea aurkituko dute. Eta zuk zeu
maite, lotsagabe, ni maitez
nahasmenduraino: zutaz ase,
orain asaldatzen zara, beste gorputz baten atzetik
zoaz, eta errefusatzen didazu bakea.
Hazta egiteko darabilzun eskua baino ez naiz.

By Natural Piety

Une bakarraren obra, diamantezko kiliedro
iheskor hau: argia
zure ile motzean? Ez. Eraikitzen
motel, eta zorrotz, helburu
gogorrarekin. Egunen zaintza, ahanztura
fidakorreko gauak, ekinaldi berri ugari
egunsentira bideratzen diren zidorretatik,
eta eguerdiko ordeka sargoriak,
eta itzulinguruek nahasitako ilunabarretan
egonezin hotzeko mendi-lepoak. Honaino igo da
zure gorputza.
Nahi dut orain eraman nazazun
behera. Nahi dut erakustea memorian
dituzun bazterrak, nola joan zaren sortuz
azaltzen dizutenak. Eramanazu igerian
ikasi zenuen putzuetara, murgildu zaren uren
sukarrak
irisatzen dituen haitzuloetara. Gal gaitezen
zure lehen beldurren haritz baxuko
basoan zehar. Jarrai dezagun
herrira ustekabeko apopiloarentzako ogia erostera

bizikletaz joanarazten zizuten errepidea.
Bartzelonara itzultzeko autobusa
itxaroten zenuen bidegurutzean gaude jada.
Igo gaitezen. Utziko gaitu hiri inguruko tabernan,
trepeta garrantzitsuz betea: beirazko
prisma luzeak txikleak ematen zizkizun,
pisagailuak udako etekina
markatzen zizun. Hiri barnean, orain zure
senaren gorpuzki diren gauzen
auzoa bilatuko dugu, oraindik nik
ikus ditzakedan gauzak dira. Erakutsi
aurpegi zaileko botilen
dendaleiho miragarria, amets hertsi
eta era berean malgu haiek, zure natura
femenino itxi eta erabatekoa atzemateko
gauza zineneko zantzuak balira bezala.
Hemen, har dezagun basokada bat esne. Edo
maila ugariko izozki bat nahi duzu, edo paradisu-
kolore
lodiko likidoren bat, oinordeko
dituzun neska hauen hanka
urdin eta gorriak bezala? Atera dira, zu
ateratzen zinen moduan, magia beltz inuzentearen
argia jariatzen duen ataritik.

Oinez, eta pixkanaka, igotzen gara
orain zure irudiak, barrukoenak baino,
pasatzen ez diren kaleetara.
Kontraleihoak ixten dira. Oraindik
geratzen da argi pixka bat, osorik da
guretzat, eta ibiltzen gara farolarik gabeko
murru ertzetatik, lauza gorrizko itsaso bat bezala
irekitzen direnak, eta itsas hondoko
usaina dago, ke ustelena eta, tupustean,
pinu heze baten hasperen berdea.
Eman eskua. Egin atzera bueltatzeko
beldur bazina bezala, eskolako atetik
berriz pasatzeko, eta bizitzeko
antzinako jolasen harridura
denboraz kanpoko pinu hauen pean, denboraren
azpian. Une laburra izango da. Une bat,
eta urratu da jada, sofa zaharra estaltzen duen
zeta higatua bezala.
Ezin zara gehiago galdu. Eman eskua,
iraganaren obra ona, zu zarena.

Udazkeneko gela

Pertsianak, ez erabat itxia,
lurrera erori nahi ez duen ikara bat bezala,
ez gaitu haizetik bereizten. Begira, ireki dira
hogeita hamazazpi horizonte zuzen eta fin,
baina bihotzak ahantzi ditu. Nostalgiarik gabe
hiltzen zaigu argia, ezti kolorekoa
lehen, eta orain sagar lurrinekoa.
Zein geldoa mundua, zein geldoa mundua, zein
geldoa
azkar doazen orduekiko
mina. Esan, gela hau
oroituko duzu?
“Asko maite dut.
Langile ahots haiek. —Zer dira?”.
Igeltseroak:
etxe bat falta da sailean.
“Kantuan aritzen dira,
eta gaur ez ditut entzuten. Oihu, barre egiten dute,
eta gaur arraroa zait haien isiltasuna”.
Zein geldoak
ahotsen hosto gorriak, zein lausoak

gu estaltzera datozenean. Lokartuak,
nire musuen hostoek estaltzen dituzte
zure gorputzaren babeslekuak, eta udako
hosto gailenak ahazten dituzun bitartean, egun
ireki eta musurik gabeak, hondoenean
gogoratzen du gorputzak: oraindik
azala duzu erdia eguzki, erdia ilargiarena.

Hiru limoi

Urtarril atsegina. Aire
berde ugariaren azpian, gauzak
ez dira gaur zakar gertatzen
ez eta lekua elkor ere. Begira:
hiru limoi, harlauzaren
lakarrean jarriak.
Eguzkitan bustitzen direnez
eta zalantzarik presarik gabe
igarri ahal duzunez
elkarlotzen dituen
metrika soila, uste duzu
ezer esan nahi dutela?
Begira, eta nahikoa izan dira
zuretzat.
Bihotz limurtua,
etsi engoitik,
isildu. Ez duzu zure egingo
harlauza lakarreko
hiru limoien jolasa.
Eta galdu aurretik
ez duzu jakingo protesta egiten.

Memoriaren ezusteko bakar batek ere
ez du ezeztatuko
oroitzapenek hiltzeko
duten manera barea.

Ahal badut

Gauzaren bat sartu da
idatzi ahalko dudala dakidan
bertsoren batean, eta ez dakit
noiz, ez nola, ez zer
esan nahiko duen ere. Ahal badut,
zuregana eramango dut.
Esan dezala zure ilea
edo azkazalean dir-dir dagizun
eguzki ezkata.
Baina akaso ez dut beti
erabat presente izango
orain zugan ikusten dudana.
Putzuren batean
erori zaidan gauza baten
hots iluna entzun dut.
Azaleratzen denean,
jakingo ote dut
une honetatik datorrela?

Ez etxe bat

“Orain jartzen baduzu eskua
teilatu bat eginez
nire bekokian, izango da
osorik etxetxo bat:
bularra, pareta;
eta ezkutatzen naiz besoarekin,
beste paretarekin, osatzen duen
txokoan”.
Eta kanpoan, maite,
begira kuxinen
mendikatea: maindireen
negu zabal lañoa
babesten zaizun abaroa.
Gailurrean, begira
lanpararen urre epela,
sartzean iltzaturiko eguzkia,
leun odolusten da
eta ez du esaten sufritzen duenik.
Gure paisaia duzu,
maite. Honaino iristeko
nik ere ibili ditut

zalantzazko bideak. Maite,
gorde aurpegia sakonago
nire bular zokoan.
Ez begiratu, eta ez utzi
zure begietan ikus nadin,
irudi dudazko,
harririk segurtasunik gabea.

Però non mi destar

Ez sartu orain. Gal zaitez
hartxintxar kurruskatsu
eta tristeki arrosakaran.
Zoaz gutxika. Geldi zaitez
begiratzera zeinen iharrak dauden
ereinotz hostoak.
Ez bilatu kolore
argiegiko laranjak.
Hobetsi banbu
irrigarriak; lurrean iltzatuta
hil diren intsektu ero edo traketsen
bizkarrezurrak.
Erreparatu gauza zorrotzei
eta eskemei. Marra
urdineko azao arruntak:
bankuak dira. Biribil
hilak: bideko platanoen
motzondoak.
Utzi pasatzen hiru ordu,
eta sar zaitezke. Ikusten duzu
zer geratu den:

hautsontziak beteta
eta basoen erdiak
ezpainen gorri zikin.
Hemen bizi izan dira, eta zu
ez zeunden. Ez dizute ikusi
keinurik, ez dizute entzun
ezer esaten. Prestatu gin bat.
Izotzik ez: erabat urtua.
Eser zaitezke, sua harro dezakezu,
eta bizi izan direla sinetsi.

Atra Mater

Handiegia da sasitza,
itsasertzeko haizeak
asaldatua.
Hemen, hain leku irekian?
Zergatik, hain lau? Eta oinek
zapaltzen dute zuhurtziaz,
ez ditzala zulo batek menderatu
suge batek bezala, ezustean.
Eta hain isil? Eguzkiak
atzaparkatu begiek zelatatzen dituzte
itzalak. Non, izugarria,
ahotsei ihes eginarazi diena?
    Zink eta egur hanpatuzko
estalpea atera
zaigun arte bidera,
eskale beltz eta zauriz basa bat
bezala (—zertara itzuli zara?
atsoa, beldurraren eremua
zu zara?), ireki da sabela
umeki metalikoz betea
(—barruan zeneraman kalte guztia,

dagoeneko egin duzu-eta):
sobera zeuden bonbak.
    Dar-dar egin du sugandilak.
Belarrak jan du herdoila.
Ez da inor ateratzen. Ez dute gordetzen
errefusa pilo hau.
Arrakalatzen ari da oroitzapenen
zolda lehorra.
Gerra zibil bat,
aerodromo behartsu batzuk.

Aurpegia

Zer pentsamendu bidegabea,
zer izaki miseria
higuingarrikoa
(gurpil
burrunbatsuak zapaldutako
sugea, gau osoan
herrestan joan dena:
haragi zaurituzko soka,
geldo zaila, sartu da
lorategi pribatu bateko
egunsentian hiltzera,
eta goiz arrosa eta berdea
nahasi egin du
euli suharren pikor luzeak eragindako
bozkarioak),
zer laztura
sartu den orain
urratzen erraza den
burmuin honetan,
eta aurpegi gazte hau
urtu da segundo batez,

urtu da argizarizko
maskara bat bezala, eta ikusarazi dit
bertan ezkutatzen den
eta noraino gorroto dugun dakien
zaharraren aurpegi saihetsezina.

Ezer ez esateko

Ez dezatela ezer esan nahi.
Izan zaitez neska txunditua,
gau batez bakarrik doana
basoan barneratzera,
non harrietatik
eta egurraren argitasuna
ixten duten enborretatik
isurtzen den abuztuko ilargia;
eta eranzten da eta etzaten
pinu orbelean, harriak
bezala biluzik, edo
egurra bezala gizonek
basotik eramaten dutenean;
eta ezjakin eztia
aurrera doa, eta beldurrarekin ordaintzen du,
itxurarik gabeko
sekretu sorta bat: ilargia
eta usainak, kilker
amaigabeen dardara,
ihes egiten duten zaratak, harri
epelak, erakusteko prest den

azal berriaren ziztada
harrigarriak, lurra
eta erretxinak.

Memoria:

ez dezatela ezer esan nahi.
Ez ditzazula gorde pentsatzen
eta deskribatzen dakizkizun
eta ahulezia egunen batean
gainontzekoekin parteka ditzakezun irudiak.

Bi lagun

Hainbeste eguzki orkatiletan,
itsaso leun eta urre koloreko.
Eskutik helduta,
ez diote ezer esaten elkarri. Gizon
mendekarien kaleak,
ez baitago haien moduko
gizonik neskek ezagutzen dituztenetan.
Orain ez doaz inora.
Itzultzen dira eguzkitik. Arratsalde
luzeak gurutzatzen dituzte, hitz
ulertezinezko kaleak.
Soilik jakin nahi dute
eskutik heldu eta
elkarrekin doazela, atzerriaren
kale batetik.

Materiak

Galdegin itzazu irudiak:
haur garaian
paradisu krudeletatik
lekualdatzen zintuzten gauzak.
Garaje ilunean,
pneumatiko zaharrak, utziak
zementu lakar arraiadunaren
gainean, isurbide aldean.
Usainak ito egiten zaitu oraindik.
Kautxuaren urmaelak:
bilbe zakarreko hondoa,
ertza zuri zikinekoa.
Besarkatzen zinen bazterrak,
harri egindako lokatzezko
zarakarrak: xehatu,
eta bertan uzten zenuen azala.
Fruitu debekatuak, munduaren
materia itxiak.
Eta zure gorputza: ekintza
temati sarkorra.

Jaiotza

Etxez betetako lurra, bide sakonaren ebakia.
Hezurreraino egiten du hozka kale estuak.
Orgaren gurpilek hausten dute harzola.
Upel handi kirrinkariak igotzen ditu, kateatuta.
Pendizak, haizeak bezala, okertzen ditu mandoak.
Oihu heraldiko bat, ahotsezko adarbakarra.
“Zer uste duzu, lan gehiago egingo duzula
garrasika?”.
Zuzi ezpain, atsoa mintzo da.
Larruzko orgaria inarrosi egin da, eta oihuka hasi.
Sugar urdinak: atsoa barreka.
Mingaina legez bustita dagoen zartailuaren kolpea.
Begiak ireki ditut. Uneari ikusi diot aurpegia.
Ezagutzen dut. Badakit noiz nagoen, berriz jaioa.
Hara-hona nabil, plazeros, hamahirugarren
mendean.

Sartalde neurrigabea

Hilodoletan den eguzki honek ez du sartu nahi.
Begira gorri eroak nola errefusatzen duen
babesleku zaion mendi maindirea.
Beste egun bat gehiegizko. Beste egun bat
hil zaizu pentsatuz bere kolorea
ez dela berriz itzuliko, usteltzen den odola
itzuliko ez den bezala. Argi lehorra,
jaurti hodei kotoiak, garbi zaitez, itzuli,
edan ezazu ilargi eta itsasozko gin aratzena.

Barraskiloa

Gainbehera dator igandea. Neskato bat,
eta gaueko hamarrak jotzear dituela.
Atariko azken uneak. Eskuak,
laztan eta kuraiarik gabe, mutikoaren
masailari heldu dio. Atsekabetuta,
barraskilo bat murru lehorraren erdian.

Hiria

Ezagutzen ninduten lekuetatik ez pasatzeko desibili ditudan kalez betea.
Izenez esan nauten ahotsez betea.
Oroitzapenak kobratu ditudan gelez betea.
Urte bilakatu zaizkidan eguzki eta euri metak hazten ikusi ditudan leihoz betea.
Begiradarekin jarraitu ditudan emakumez betea.
Nik dakizkidan gauzak bakarrik jakingo dituzten haurrez betea; eta ez dizkiet esan nahi.

Josep Carner

Gauaren goren eta ilunenean, ez dut sentitu nahi
kanpoan burrunbatzen den maiatzaren usaina, eta
txikia da lanpara, nahikoa liburuaren orrialde
meheak
argitzeko, poesia, Carner,
zuk atzo eman zenidana. Duela bi urte eta lau
hilabete
eman nion liburu hau beste neska bati. Harengan
pentsatuz irakurri ditudan hitzak, eta hark niretzat
irakurri zituenak, eta erabat berri direnak, orain
zuretzat irakurtzen ditudanean, pentsatuz zugan.
Hiruroi hitz egin diguten hitzak, elkarren antza
izatea eragin dutenak. Irauten duten hitzak,
egunak aldatzen diren bitartean, eta zentzuak
berritzen,
berriro uler ditzagun eskainiak. Aberri bat nola.

Zorriak

Joan egin zen. Ezagutzen ez gaituen jendearekin bizi da
eta gutaz mintzo zaie. Maiz, itzultzen da
eta atzematen ditu lotsarazten gaituzten jarrerok:
ur basoa betetzen, galdu dugu arreta,
turrustan doa txorrota eta izozten dizkigu hatzak,
eta bere begiek igarri dute, ez gara dagoeneko
etxetzar honetako hotz handiarekiko sentibera.
Egun batzuk igaroko ditu, eta aurpegiak
zaizkigu zurbildu eta hustuko,
goiz grisa urratzen denean, trenen arteko
talkaren ondoren, hartxintxarrezko ezponda batean
odolusten den zaurituarena bezain. Berandu etorriko da
bazkaltzera eta afaltzera. Ilea nahas,
sotoak, teilatuak miatu dituela azalduko du.
Gureak baino bizitza sorragoak daudela,
gure bizilagun. Eraikin guztia
ustekabeko eskailerak dituzten begietako sitsak
hilduratzen duela. Harekin igoko gara,
eta lurrean erditzen den ganbara batean

makurtu beharko gara. Usnatu egingo dugu.
Hortz gaizki lerrokatuen erruz lertzo kolorea duten
jakiak dastatuko ditugu. “Ez duzue esango
zuen pobreek asko sufritzen ez dutenik”.
Azken arratsean (biharamunean badoa)
garaiz iristen da, begiak piztuta,
papur bati eusten dio mahai-zapian
eta erortzen uzten du. “Zorriak dira”. Atso baten
sabelpean sartu du eskua.
Ez dugu ezer esaten. Gure anaia da
eta da betikoa. Besotik heltzen diogu
eta sentitzen dugu nola egiten duen dar-dar
plazerez.

Osaba

Haientzat, ordu mingarria. Marmelada,
laranjak eta ogi xigortua eta kafea.
Baina eskuak hotzik gabe hunkitzen dira,
burbuilazko galga biluziak, eta erakusten dute
beren ziurreza. Eztul egiten dute gurasoek,
esne katiluaren likari lotu zaion pipiaz
egiten dute hausnar, eta usnatzen dute
nahasgarri zaien bizitza hori eta berdinaren gaina.
Kalera daramate beren higuina
eta ez zaie noski berehalakoan joan.
Eguerdian, egiazki, bestelako aurpegiz
itzuli dira. Haiek dira ostera,
behar duten bezala. Badakizkite ordena
egoki, etxeko, politikoen printzipioak.
    Baieztatu, manatu, esana uzten dute.
Nahasten dute tiradera, esperientziaren mataza
zaharrena, eta zintzilikatzen dituzte,
hariltzeko, seme-alaben eskuetan.
Eskuak ixten dira, hotzak azpiratzen ditu hatzak,
poliki dabil munduko odol guztia.
Gurasoek hitz egiten dute eta marmarra da

isildu arteko itxaronaldia. Goizeko irudiak,
haitzulo hondoko piztia inarrosiak bezala,
gelditu dira, doilor, fedez hustutako
begietan. Eta seme-alabek, seguruegi
ikusi duten murritzaz eta eurentzat nahi duten
anitzaz,
ez dute ahazten gurasoei nola ireki zaien,
gaitzesgarri, pitzadura paretan.
Erdeinuz lainotsu, etxea izan zen
kale hutseko kristaletatik lerratzen dira.
Non dago lehorra eta ziurra? Eskularrua batekoz
bestera ipini,
eta kanpoan dago barrua. Kanpoan daude
gauza sinesgarriak. Inonez batetik deitzen die
Osabak. Badakite nor den: gurasoek
jasaten ez duten Osaba maltzurra. Bilatuko dute,
sekula, gauak eranzten baditu ere, goizean biluzik,
lotsa ezagutuko ez duten
bizitza baterako hezi ditzan eskatuko diote.
Adostasun lurretan itzulinguruka beti, Osabak
ez ditu baztertuko. Konplize sotil,
galtzen diren bazterretan agertzen zaie.
Nahi dutenarekiko adeitsu, Hark gidatzen ditu.
Urteak Inonezean, eta Hura ere hiltzean

itzultzen dira. Ez dute gehiago hitz egiten. Egun batez,
entzuten dute goiza dela haientzat ordu mingarria.
Seme-alabak hazten ari zaizkie. Ingurura begiratzen dute,
zenbatu, eta ez daude denak. Inon ez
dute ikusten arreba, hain geldi,
katua harri kolpez hil zuena
eta hiru gauez lo egin katu hilarekin.
Non dago anaia nagusia, behar ilunak
betearaziz tormentatzen zituena?
Eta beti zikin zihoazela, gizon usaina zutela
esaten ziena? Ez dituzte ezagutzen
Inonezeko mandioak, Osaba hilaren garaian
igotzen zituztenak, maiteenak.
Galdutako guztiak daude bertan: Osaba berriaren
aurpegia zizelkatzen dute, seme-alaba berrientzat.

Lainoa

Haien begietara zahar eta gris bilakatu aurretik,
nire hodeiaren itzala izadi eta soro
eremuaren gainetik: zure lurra,
errautsezko maluta leun bat bezala, hautemanezina
haientzat guztientzat, baina ez oraindik zuretzat,
agurragatik asaldatuta kizkurtuko da
azken haize zurbil batek eramaten duenean,
eta utziko dizu hotz maskal baten oroitzapena.
Badakit nola, gero, irekiko zaizkien eguzki
bideak, hosto zintzoen sorpresa
anitzean, zure eguerdiaren txirula zalu
infernukoak belarriak ziztatzen dizkienean.
Badakit nik, orain zure egunsenti-argi sarkorra
lainotzen dudan honek. Altxatu beharrari
etsia emanik, urratzen naiz sasitzan
eta negarraz betetzen ditut zalantzazko ildoak.

Basoa

Oroitu. Bost maila.
Lur eta bizitza iluna.
Huntz oparoa.
Eta neska. Neskaren gainean
armiarma kulunkaria,
liztor ikaratua
eta zu. Sasia
ondo-ondoan, herdoil
higuingarria. Bost maila,
lokartutako senak utzitako
aztarna lodi batena.
Eta dena inguruan,
argi proiektu
nekatu edo eskarmenturik gabea,
goititzen ikusi zenituzten
haritzen enborrak.
Ezerk ez zuen iragartzen,
baina itzuli zinen
gordean, begiak hordi.
Itxaronaldi labur bat
eta, zainak bezala

zakar-bero, adarrek jariatu zuten sufrea,
neguko eguzkiarena.

Hatzak

Arin, hasi zuen
euria gau hartan.
Arin, askatu ziren
zure hatzak nire hatzen artean.
    Agurraren une laburra.
O, bi egunerako bakarrik.
Irribarre egin zenidan
zure larruzko berokiaren gainera
    erortzen ziren euri-malkoen artetik.
Ezkutatu zaituen
tunel zakarraren dardara: bihotz nahasi,
gau honetan apurrak egingo ditut
    hatzetako oroitzapenen
lorratzarekin. Bi egun mentsik,
zure hatzen ukipenaren itzala
estutu zuten, nigandik ezkutatu zinenean.

Seme

Dagiala kirrinka arratsaldeak. Eztarrian traba
dakiekeela denbora.
Soinu txikiak iristen dira. Etxe guztia
artegatu da, eta isiltasunaren aska
ikaratu. Etxe itxi zoriontsua.
Fosforo hotza taupaka, lokartu da ur sakoneko
piztia, bi gorputz luze-lotuak.
Ebakia, denbora. Xaboizko bildots,
dutxapean neska. Hitzak
eta barrea, azalaren gainean arin, ur zakarrarekin
ihesi doan aparra.
Ebakia, zerra zintaren
intziria: bortitz urratu da
haurraren negarra.
“Agian da
egin ez dugun haurra, kexu zaiguna”.
Seme,
besteren kreatura, isil zaitez. Aurki itzazu
salatzen dituzun biak, elkarri promestu bai
baina konplitu ez zioten bi gaixoak.
Tentatzaile baldarregia, lotsarazten gaituzu.

Aurki ezazu beste gorputz bat eskaintzen zenuenean nahi izan zintuena. Iraulka zaitezte hirurak.

Umetokia

Ordu batzuk daramatza hemen.
Haren gorputz zatiak, ez lotsazkoenak
baina haren gorputz zatiak, barreiatu dira
eta banakatu gela honetako lau edo hogei
bazterretan. Eta maite ditudanotan
gauzatua bizi naiz orain.
Mugimendu bat egin, eta nire tolesturaz
harago luzatzen naiz, ukituz galtzerdi
edo zapata edo jertse edo soineko bat:
nirea den lurraren mugak.

Abesti ergela

Axolagabeen urtea Hogeita hemezortzia
Hondartza debekatu zuten
eta biluzik bainatzen ginen
burdin hesiaren azpitik igarota
Larrua jotzen ikasi nuen
Pedralbeseko pinuen itzalean
kamioiek zurrunga egiten zuten bitartean
barkuak Ebro zeharkatzera zeramatzatenean
Costa Bravako barkuek
bide egin zuten gurutzatu zuten
nekazari herri saldo bat
bosgarren zutabeko hiri bat
Azkenerako Ebro zeharkatu zuten
Haiek ere ez zuten espero
Hogeita hemezortzia Axolagabeen urtea
Larrua jo nuen Hondartza izan nuen
Txalupatxoek Ebro zeharkatu zuten
eta hegazkin zimurtu batean
Toulouse inguruan lur hartu nuen
justu bake frantsesa gordetzeko
gure gerrak Daladier jauna

tentetu ez zuen egunean
eta erdibiturik ikusi nuen neure burua
Urte oso bat bizitzen egunka
Argi baten urre Turuta hots
Oroitzapen gozoko txarrantxa batek
mozten dit hirurogeita biko
egun koipetsu baten loditasuna
Hogeita hemezortzia Urterik baldarrena
eta nik ikasi nuen bizitzen
zeinen hankarte mataza arrosakara
Axolagabeen urtea Hogeita hemezortzia

Urriko euliak

Euriarekin, hondartza zarakartzen da, uda guztiak
baino luzeago. Ikasten duzu hutsik begiratzen,
ezkutuan dagoela dirudien, eta ezpainek azalaren
gatz lotsabakoa aurkitzean distira egiten duen
eguzkirik gabe.
Zaila da goizak esnatzea, eta arratsaldeak ibiltzen
dira
orban erigarriko urre batetik, pisu eta itsu,
putzua putzuaren atzetik.
(Drainatze txarreko bihotza.
Urtzen ez den irudia.)
Bizirik bakarrik haiek, eguerdian
jasotzen den suharraren koagulu beltzak, oraindik
zaharkitu ez ikustearen bozkarioz, oroitzapenak.
Luzea da hondartza, ibiltzen zara, arratsaldeak ez
du aski
pazientzia merezi. Begiratuko duzu sartu gabe,
hilabete luzez, esfortzuagatik apartsu inarrosten den
itsasoa, ezpara batek bakean uzten ez duen mando
baten
azala bezala.

(Eta emakume batek ezkutatzen badu
zure bularrean aurpegia, ez dezazun ikus
nola iraulkatzen duen askatu duzun korronte ilunak,
gero, esku arina masailean,
barkatzen badiozu beldurra, eskertzen badiozu,
zurekin batera, eramaten utzi izana
elkarri lotzeari aspalditik zenioten
beldurra ezagutzen ez den zurrunbiloraino
—berriz esango duzu bizitza? Ez ote da hobe
negua erortzea?)
Eta oraindik, gaueko trenek
txistu egiten dute pasaeran, asmoz krudel. Eta
irribarre
egiten diote gizonari, betirako, jakin nahiko
lukeenari,
betirako zoriontsu, bizitza dena izan dela,
ez dela izango besterik ezer.

S-Bahn

Nox longa quibus mentitur amica, diesque
longa videtur opus debentibus.
Denek zor dute lana.
Zorrak hondatzen ditu,
obrak ez du amaitu nahi:
hondakin piloak, zikintzen dituzte arimak.
Betreten der Abbaustelle verboten.
Hogeita hamar urteko gizonak
(*A wakeful brain*
Elaborates pain)
lokartzen dira S-Bahnean,
egur nabarreko eserlekuan nabar,
urterik nabarrenak izan arren orain hogeita hamar
urte.
Izpiritu honek ere nahi duen lekuan egiten du putz,
putz hautsak eta bere oinazearen
zurrunbiloak. Lo dauden burmuin hauek
pirritan doaz, ez ihes, orobat penetan.
“Orain, neskak,
qui tant d’eau froide m’a fait boire,
gizon bat dauka izter artean. Larunbata da,

bere eguna. Gustatzen zaizkio
week-end gizonak, ahoa ondo itxita dutenak,
diruaren hatsari kiratsa dariolako.
Ein ernster Vogel gesanglos”.

“Emakumeen amodioa,
diotenez, umila da.
Maitemintzen zara
emakume batez,
hegazti uzkurtua.
Aztoratzen duzu, eta begira:
habiaren barrenean
lurrun samurrez estalia,
arrautza aratza balitz bezala,
sukarra du maritxu batek,
sorpresa biribila.
Aski errepikatu da.
O, zure emakumeen
amodio umila”.

“Azkazalak eta ileak hazten ari zaizkit.
Segizioak kaleak eta kaleak igaro ditu,
eta goiz honetan ikasle garaian ezagututako
neska bat aurkitu dut:
arbola orduko hartan loriatsua, haizeak
harro zitezen egiten zuen oihu, gero urratzeko.

Orain zaurituta egiten du irribarre: bost urte
zahartu izanaren desohoreak markatu du.
Eta zuk, nire suge, nire urguilu,
erdibidean utzi nauzu. Ez gara joango
elkarrekin Amsterdamera. Urre eta odol (gizonaren
obra den dragoia), olioaren zolda sakonak
dir-dir dagi. Zer da gizon bat? Bi esku,
bata emakumearen bularrean eta bestea sabelean.
Azkazalak eta ileak hazten ari zaizkit.
Leiho gisako aurpegiak, eta gizonen
gauzez mintzo gara, eta nik diot
baietz baietz. Jainkoen obra ziren
hainbat gauza, gizonaren obra dira.
Ez ditut kristalak hausten, ez dakit biluzik
iraulkatzen oin hauen arteko bare grisak bezala.
Leihoak altuak dira, eguzkia taupaka,
eta begiak altxatzean, itxi egin behar ditut.
Ezerk ez du inoiz berriro zentzurik emango.
Azkazalak eta ileak hazten ari zaizkizu.
Ez eta zu itzultzeak ere. Jada
zuk ere ez. Kristal zatikatuek ere
ez dute zaurituko gorputz likina, bare grisa”.
“O jauna, jauna
nola saiatzen den inarrosten, borondate onez,

biek berea dela dioten
andereñoren baten ahoan.
Neska askatzen den arte. Ahoak,
oraindik zabal, barrea
du erakusten. Ontasunak
oraindik nahasten dio aitzakia, eta esaten du:
nola aspertzen naizen. Eta jauna, bere
atalik onena aspergarria zela entzutean,
ezgai bihurtu zen. Baina bazuen
halaber hainbat ontasun eskura
eta bat aukeratu zuen, uko egiten duen
umiltasunezko laztana,
eta gorputzean behera uzkurtu zen
(ahokatze gabeko bi gorputz, errai labainak
bakarrik, samurtasun orduek
azal elkorretik askatu dituztenak)
eta ez zuen bere burua korapilatuta
ezagutu behar izan. Modu horretan andereñoa
joan zen zahartzen. *Domina,*
non sum dignus”.

Errukiak, erruki zapalduak, haurraren
eskularrua: galipotezkoa den zeru koloreko
lokatzak blaitu du, eta baten batek
jaso, eta zintzilikatu du *Stacheldraht* baten

atzaparrean, beldur
teutoniko hori. *I maintain that terror is not of Germany but of the soul*.